



ZIBIL ARLOKO JURISDIKZIOARI BURUZKO ONLINE IKASTARORAKO DEIALDIA

Justizia Administrazioiko Zuzendaritzak Zibil arloko Jurisdikzioari buruzko ikastaroa eskaintzen du, on-line modalitatean, lan-poltsetan daudenentzat bereziki zuzenduta.

Baldintzak:

1. Ikastaroan **lehentasuna izango dute** Justiziako Administrazioiko Kudeaketa, Izapideketa Judizialeko kidegoetako lan-poltsan daudenek; zehazki, justizia administrazioan zibil arloan, azken bi urteetan 6 hilabeteko lan esperientziarik ez dutenek.
2. Automatrikula, hurrengo estekaren bitartez egingo da:
 - [Jurisdikzio Zibila online izen-ematea](#)

modu honen bidez aurkeztutako eskabideak bakarrik hartuko dira kontuan.
3. **Automatrikulatzeko epea** argitaratzen denetik, **maiatzaren 9ko goizeko 08:00etara arte** izango da.
4. Maiatzaren 21ean, posta elektronikoko bat bidaliko zaie ikastarorako onartu direnei. Erabiltzailea, pasahitza eta ikastaroan nola sartu adieraziko zaie posta horretan.
5. 300 plaza eskaintzen dira. Hautatzeko, bitartekoen lan-poltsako hurrenkerak izango du lehentasuna.
6. **Ikastaroa maiatzaren 21ean hasiko da, 14:00etan, eta ekainaren 3an amaituko da, 08:00etan.** Epe horretan ikasleak online sar daitezke ikastarora.
7. Ikastaroa moduluz osatuta dago. Modulu bakoitza amaitzeko, autoebaluazio-test bat egin behar da. Test horri esker, ikasleak zenbat aurreratu duen jakingo du, eta moduluak behar beste errepikatzeko aukera izango du, modulua behar den moduan ulertu eta ikasi arte.
8. Azterketa egiteko eskubidea izateko, ikasleak **ikastaroko test guztiak egin beharko ditu.**
9. Ikastaroa amaituta, **ekainaren 5etik (14:00etan) ekainaren 14ra (goizeko 8:00etan) bitartean**, ikastaroaren **azterketa (online)** egiteko epea irekiko da. Ikastaroa gaindituta, ordezkapenak egiteko deitu ahal izango zaie lan-poltsetan daudenei.